

# A2.2 MAILA

---

## **Supermerkatura joan ala on-line erosi?**

**Ikusi bideoa eta erantzun galderak. Super Amarako Toñi Rodriguezi egin diote elkarrizketa bat. Galderak ordenatuta daude, baina erantzunak desordenatuta. Galdera bakoitzaren erantzuna bilatu.**

### ***Galderak***

1. Zergatik erabaki duzue erosketak online egiteko aukera ematea?
2. Zein dira online eta dendan erostearen alde onak eta txarrak?
3. Nola funtzionatzen du?
4. Etorkizunean, denok online erosiko dugu?

### ***Erantzunak***

- A. Denda fisiko batera joaten bazara, produktu freskoa zuzenean ikusten duzu: nola dagoen, ze kolorea (zer kolore) daukan... Dena ikusten duzu. Hori ez da gertatzen online. Online badaukazu argazki bat, baina ez dakizu nola dagoen momentu horretan produktua, ez? Baina online denda oso eroso da, eta abantaila asko dauka: adibidez, ahal duzunean erosi dezakezu, edozein momentuan, edonon erosi dezakezu, eta publizitatea egiten ari gara horri buruz. Ilean baldin bazaude eta aspertuta baldin bazaude, ba zergatik ez

- B. Momentuz pixkanaka-pixkanaka dihoa (doa). Baina bai, nik uste dut etorkizunean guztiok egingo dugula erosketa online bidez. Adibidez, gure gazteek egiten dute dena online bidez ez? Edo Internet bidez. Zapatilak, arropa, erosten dituzte Internet bidez. Edo bidai bat prestatzeko edo informazioa jasotzeko, dena egiten dute Internet bidez. Eta gazte horiek izango dira gure bezeroak ez? Etorkizunean gure bezeroak izango dira. Eta haiek, dudarik gabe egingo dutela dena Internet bidez.
- C. Bai, ba batez ere gure bezeroek eskatzen dutelako. Azkenean, online denda zerbitzu bat da, eta, horrez gain, Super Amara ez dago leku guztietan; ez dago herri guztietan ezta auzo guztietan ere
- D. Oso erraza da. Hasieran eduki behar duzu Super Amarako txartela. Hori egin eta gero, erosi dezakezu, ba hori, edonon edo edonoiz. Erosketa egiten duzunean Riberas de Loiolako (Loiolako Erriberan) dagoenak jaso du zure erosketa, eta haiek, langileek prestatuko dute erosketa hori. Prestatu ondoren, ordaindu egin behar duzu, orduan pasa egin behar dute kutxa batetik eta zure txartelaren zenbakiarekin ordaintzen du zure erosketa. Gero, gordetzen du erosketa biltegi batean eta esan duzun orduan jasoko duzu etxean eta listo.

1	2	3	4

# ERANTZUNAK

1 – C

2 – A

3 – D

4 - B